

AZKEN TXOSTENA

**ARALAR (ES2120011) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU (KBE) IZENDATZEKO INFORMAZIO
EKOLOGIKOA, KONTSERBAZIO-XEDEAK ETA JARRAIPENERAKO PROGRAMA BILTZEN
DITUEN DOKUMENTUA JENDAURREAN EGOTEKO ALDIAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN
TXOSTENA EGIN OSTEAN ADMINISTRAZIOEKIKO HITZARMENEN PROZEDURA ETA
ERAGINPEAN DAUDEN EKONOMIA- ETA GIZARTE-ERAGILEEI KONTSULTAK EGITEKO
PROZEDURA AMAITUTAKOAN EGINDAKOA**

2016ko apirilaren 21a



Nahi izanez gero, J0D0Z-T0PZR-D5SE bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0PZR-D5SE en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

“Aralar (ES2120011) kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzeko informazio ekologikoa, kontserbazio-xedeak eta jarraipenerako programa biltzen dituen dokumentua”-ren jendaurreko informazio eta parte-hartze prozesurako, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen (abenduaren 13ko 42/2007) 45. artikuluan ezarritakoa hartu da kontuan, Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentaraua (Habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzearen ingurukoa) mugitzen duena, jendaurreko izapideak eta ekonomia- eta gizarte-eragileentzako kontsulten izapideak gaituz, eta parte-hartzea emanez prozesu honen helburu diren xedapen orokorrak egiteko prozeduran foru-organoei eta aurreikusitako arauketaren eraginpean zuzenean egon daitezkeen Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuei parte-hartzea emanez, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen (abenduaren 22ko 8/2003) 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz (2003ko abenduaren 30eko EHAA, 254. zk., eta 2011ko azaroaren 25eko BOE, 284. zk.).

Hori guztia dela eta, jendaurreko informazio eta parte-hartze prozedura honako fase hauetan garatu da:

1. Informazio-saioak eta elkarrizketa parte-hartzailea.
2. Jendaurrean egoteko aldia, ekarpenak egiteko, alegazio modura.
3. Jendaurrean egoteko aldian egindako alegazioen erantzunen txostena.
4. Eraginpean dauden herritarren ordezkari diren erakunde eta elkarteei kontsultak egiteko izapidea.
5. Eraginpean dauden administrazioekiko elkarrizketa- eta hitzarmen-prozesua.

Horren guztiaren ondorioz, “Aralar (ES2120011) kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzeko informazio ekologikoa, kontserbazio-xedeak eta jarraipenerako programa biltzen dituen dokumentua”-ren behin betiko idazketa egin da, eta, horretarako, eragileekin adostasuna lortu da, Natura 2000 Sarearen espirituarekin bat, dokumentuaren egiturari, haren funtsezko elementuei eta kontserbazio-helburuei eutsiz, bai eta haren oinarritzko arauak ere, eta Zuzentzauei eta Kudeaketa Neurrien Dokumentuaren III. eranskina kudeaketa-arauak eramanez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena izanik. Beraz, ez du funtsezko aldatetarik jendaurrean jarritakoaren aldean.

Hurrengo ataletan, xehetasunez aztertzen dira haren prozesua eta amaierako emaitza, ekonomia- eta gizarte-eragileek aurkeztutako ekarpenak jaso ondoren, bai eta eraginpean dauden administrazioekin izandako elkarrizketaren eta hitzarmenaren emaitzak ere.

1.1 PARTE-HARTZE ETA INFORMAZIO PUBLIKOKO PROZESUA

1.1.1 INFORMAZIOKO ETA ELKARRIZKETA PARTE-HARTZAILEKO SAIOAK

- *Erakunde-aurkezpena Aralar Parke Naturaleko Patronatuari (Donostia, 2014ko ekainaren 12a).*
- *Helburuak eta neurriak eztabaidatzeko tailerra (Ordizia, 2014ko abenduaren 9a).*
- *Prozesuaren emaitzen eta itxieraren itzultze-saioa (Ordizia, 2015eko urtarrilaren 25a)*

1.1.2 JENDAURREAN EGOTeko ALDIA

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko apirilaren 22ko Aginduaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aralar (ES2120011) Batasunaren garrantzizko lekuko (BGL) kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzeko aurretiko onespina adostuta, Natura Ingurunearen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko maiatzaren 28ko EBAZPENAREN bidez, jendaurrean jarri da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aralar (ES2120011) Batasunaren garrantzizko lekuko (BGL) kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) izendapena, eta, horretarako, 2015eko ekainaren 5eko, ostirala, EHAA (104. zk.) argitaratu da, alegazioak aurkeztu ahal izateko 2015eko abuztuaren 6ra arte.

1.1.3 JENDAURREAN EGOTeko ALDIAN ALEGAZIOEN BIDEZ EKARPENAK EGIN DITUZTEN ERAKUNDE ETA PERTSONEN ZERRENDIA

(1) .-ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

1. Natura Ingurunearen Zuzendariorde Nagusia. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.
2. Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
3. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
4. Abaltzisketako Udala.
5. Zaldibiako Udala.

(2) ELKARTEAK ETA PARTIKULARRAK

1. Ingurugela Legazpi.
2. Atauniker Kultur Elkartea.
3. Gipuzkoako Baso Elkartea.
4. Baskegur Elkartea.
5. Gipuzkoako EHNE.
6. Gipuzkoako ENBA.
7. Landarlan Ingurumen Elkartea.
8. Euskadiko Ehiza Federazioa.
9. Gipuzkoako Mendi Federazioa.

1.2 JENDAURREAN EGOTEKO ALDIAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNEN TXOSTENA

2015eko urrian, jaso ziren alegazioen erantzunen txostena prestatu zen, eta txostenaren berri eman zitzaizen interesdunei; IREKIAN argitaratu zen, 2015eko urriaren 26an.

1.3 TARTEAN DIREN ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRIZKETA ETA HITZARMENA

1.3.1 PARTE-HARTZAILEAK

1. Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Zuzendaritza, biak Eusko Jaurlaritzarenak.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusia.

1.3.2 ALDE GUZTIEKIN BATERA EGINDAKO SAIOAK

- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Zuzendaritzaren, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusiaren arteko lan-saioak:
 - 2015eko urriaren 21a, asteazkena, goizeko 10:00etan, Ihoben (Urkixo zumarkalea 36 - 6. solairua)
 - 2015eko azaroaren 2a, astelehena, goizeko 10:00etan, Ihoben (Urkixo zumarkalea 36 - 6. solairua)
 - 2015eko abenduaren 10a, osteguna, goizeko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzan (Donostia kalea 1 – Vitoria-Gasteiz) – EGURREZKOA ARETOA
 - 2015eko abenduaren 21a, astelehena, goizeko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzan (Donostia kalea 1 – Vitoria-Gasteiz) – 6. ARETOA
 - 2016ko otsailaren 2a, asteartea, goizeko 10:00etan, Ihoben (Urkixo zumarkalea 36 - 6. solairua)

2 DAGOKIEN ADMINISTRAZIOEKIN HITZARMEN-FASEAN PLANTEATUTAKO GAIK ETA PROZESU HORREN ONDORIOZKO ALDAKETAK

Atal honetan, amaieran, alegazioen azterlanaren eta txosten teknikoaren ondoren, tartean diren administrazioen arteko elkarrikerak eta hitzarmen-fasean planteatutako gaiak blokeetan taldekatzeko lan sistematikoa egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen (abenduaren 22ko 8/2003) 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz; bertan ezarritakoa Eusko Jaurlaritzak eta Autonomia Erkidegoko Administrazioak egiten dituzten xedapen orokorrei aplikatu dakieke. Honako hau ezartzen du 9. artikulua: *“Xedapen orokorrak egiteko prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie egitekoa den arauketak zuzen-zuzenki eragiten dien Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei.”*

Kasu horretan, hitzarmen-prozesuak kontuan izan du eskumenetan eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusiaren geroko jarduketan proposatzen den arauketaren eragina. Arreta eta azterlanaren helburu izan da, jarraian hitzarmen horren emaitzak eman dira, kontuan hartu da horietako batzuk amaierako testuan jaso direla, jendaurrean jartzeko testuarentzako hobekuntzak direla ulertzen delako, funtsezko aldaketarik eragin gabe.

2.1 PLANTEATUTAKO GAIEN ZERRENDA

Gaiak honako bloke hauetan bereizi dira, tratamendu sistematikoa egiteko:

- **Eskumen-banaketa**
- **Dokumentuen ereduak, egitura eta edukia**
- **Arauaketa orokorrak**
- **Arauaketa bereziak funtsezko elementuen arabera:**
 - (1) **Baso naturalak eta erdinaturalak**
 - (2) **Haltzadi kantaurreak**
 - (3) **Larreak eta formazio belartsuak**
 - (4) **Komunitate harkaiztarrak**
 - (5) **Kiropteroak**
- **Habitat-taulen laburpena eta espezieen taula**
- **Jarraipen-programa**
-

2.2 BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEKIKO ELKARRIZKETA- ETA HITZARMEN-FASEAREN ONDORIOZKO ALDAKETAK

2.2.1 Eskumen-banaketa

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako hitzarmen-prozesuan, adostu egin da indarrean dagoen araudian ezarritako aplikazioko eskumen-araubidearen antolaketan oinarritutako testuaren zati bat aldatzea, alegazioen txostenaren fasean egiten zen analisisa abiapuntu hartuta:

- Dokumentu horiek Batasuneko, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiari jarraikiz bete behar dira. Zehazki, Habitaten 92/43/EEE Zuzentarauaren 2. artikulua, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen (42/2007) 2. artikuluekin lotuta, natura-ondarea kontserbatzeko printzipio horiek ezartzen dituen, bai eta apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena) arabera bat datozenak ere; horiei ere prestatutako dokumentuaren bidez erantzuten zaie.
- Indarreko araudian ezarritako aplikazioko eskumen-araubidea jarraian zehazten da:
 - Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen (42/2007) 44. art., aurrerantzean NOetaB: *“Autonomia-erkidegoek deklaratu dituzte Kontserbazio Bereziko Eremuak eta hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak beren lurralde-eremuan, informazioa jendaurrean jartzeko prozedura bete ondoren”*.
 - Azaroaren 25eko 27/1983 Legea (Autonomia-erkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa), aurrerantzean, LHL: 6.1 artikulua, 7.c.3. artikuluekin lotuta, foru-aldundiei naturagune babestuen *administrazioa* esleitzen die.
 - 1/2014 Legegintza Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina (NKLTB) onartzen duena), xehetasun handiagoz jasotzen dituen:
 - Adierazpena: 19.1 artikuluan NGBen adierazpena Eusko Jaurlaritzaren Dekretuari esleitu zaio.
 - Kudeaketa: III. tituluko IV. kapituluaren kudeaketa jasotzen da, eta, 25.1 artikulua dakarrenaren arabera, foru-organismoek NGBak kudeatzea dagokie, *legeak ezartzen duenaren barruan*, 26. artikuluan jasotzen dena betez:

Naturaguneak kudeatzeko organismoek honako eginkizun hauek bete beharko dituzte:

a. Urtero kudeaketaren aurrekontua eta programa eratzea. Natura-parkeen kasuan, horien onarpena patronatuak eman beharko du, 34. artikuluan ezarritako dagoenaren arabera. Agiri horietan, dauden natura-baliabideen antolamendu-planen xedapenak aurrera eramatea ezarri beharko da.

b. Bertako zerbitzuetatik jasotako fondoak eta kanpotik jaso ditzaketen baliabideak administratzea.

c. Naturagune babestuen babeserako arauak gunen barruan bete daitezzen zaintzea. Babeserako arau horiek Natura Baliabideen Antolamendu Planean edo, hala badagokio, naturagune babestuaren izendatze-arauan ezarrita daudenak dira. Orobat, naturagunea kudeatzeko organoak bidezko diren txosten eta baimenak egin beharko ditu.

d. VI. tituluan ezarritako zehatzeko ahala erabiltzea.

e. Indarrean dagoen legerian, natura-baliabideen antolamendu-planetan eta erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planetan ezarrita dagoen beste edozein eginkizun.

- Era berean, NKLTBren 22. artikuluan, berariaz jasotzen da Natura 2000 Sarearentzako eskumen-araubidea. Honela ezartzen da:

“22.4.– Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) izendatzeko dekretuek halaberrez izan beharko dituzte honako hauek: lekuaren eta bere mugaketaren kartografia, izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazio bat, lekuaren kontserbazio-helburuak eta jarraipen-programa bat.

22.5.– Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztien babeserako eremu bereziak (HBBE) izendatzeko dekretuek kontuan hartuko dituzte Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kontserbatzeko sortutako arauak. Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kudeatzeko jarraibideak eranskin gisa argitaratzeko agindua emango du.

Lurralde historikoetako foru-organismoek kudeaketa-jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio-egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak. Plan horiek bereziki aintzat hartu beharko dituzte azalera osoa zein bere lurzorua zati handi bat leku horietan daukaten udalerrien beharrak. Baldintza horien arabera egingo diren jarraibideak Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailari bidali beharko zaizkio, dagokion izendatze-dekretuaren eranskin gisa argitara ditzan”.

Lurralde historikoek gai horretan dituzten eskumenak direla eta, LHLn eta NKLTBn, hurrenez hurren, honako hau jasotzen da:

- NGBen administrazioa LHLren 7.1.c.3 artikuluan jasotzen da, lege-testu bereko 7.1.C artikuluari lotzen zaion horretan, eta honako hau dio: “Honako gai hauetan, Bateango Erakundearen legebideak bere mugartean egiteratzea dagokie Kondaira-Lurraldeei”. Funtzio hori LHLren 8.3 artikuluan garatzen da, zeinak jasotzen baitu egikaritze-ahalmenak baterako erakundeek ematen dituzten xedapen orokorrekin bat etorritik gauzatuko direla, eta esparru horretan beren zerbitzuak antolatu ahalko dituztela eta administrazio-ahalmena (ikuskaritza barne) eta berrikusteko ahalmena izango dituztela administrazio-bidean.

Konstituzio Auzitegiaren 102/1995 epaiak (FJ 22) argitu zuen natura-parkeen esparruan “kudeaketa-kontzeptuaren edukia administrazioaren sinonimo gisa erabiltzen dela”, beraz, bi arau horien edukia bat dator, eta ez dago alderik kudeaketaren eta administrazioaren artean.

Horrenbestez, eskumen-araubide aplikagarria da LHLn jasotzen dena (6.1 artikuluan, non 7.c.3 artikularekin lotuta foru-aldundiei esleitzen baitzaie naturagune babestuen *administrazioa*), bai eta NKLTBn ere (22. artikuluan, non ezartzen baitu kontserbazio bereziko eremuen (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremuen (HBBE) izendapenen dekretuek Eusko Jaurlaritzak horiek kontserbatzeko prestatu dituen arauak jasoko dituela). Hark eremua kudeatzeko Jarraibide eta Neurriei buruzko III. eranskin gisa argitaratzeko aginduko du, eta lurralde historikoetako foru-organoei dagokie onestea, horiek hartu dituzten neurri egokiak barne, kontserbazio-helburuetan oinarrituta.

Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio egokitzen jotzen dituen neurriak zehaztea eta onestea alegazioaren helburu den jendaurreko fasean jarritako dokumentuan jasotzen diren helburuak eta arauketak betetzeko, bai eta dagozkion finantzaketa-iturriak ezartzea ere. Beraz, bidezkoa da II. eranskinetik ateratzea eta III. eranskinean sartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehazten duen moduan, II. eranskinean jasotzen diren helburuak eta arauak betetzeko.

Bai kontserbaziorako eta jarraipen-programarako informazio ekologikoaren, helburuen eta arauen dokumentuaren eta bai jarraibideen eta kudeaketa-arauen dokumentuaren edukien –EJren edo GFaren eskumenekoak– analisi xehatua dagoeneko egin da, baita prozesu honetan zehar egindako elkarrizketa- eta hitzarmen-prozesuan adostutako banaketa ere –prozesu horretan Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu du kudeaketaren erantzukizuna, dokumentuan ezartzen diren helburuak betetzeko; beraz, horrek dakar neurriak hartzea, dagokion kudeaketa ekonomikoa hartuta–.

Horrela, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean egindako hitzarmen-prozesuan oinarrituta, eta toki-erakundeei eta zuzenean eragina jasaten duten ekonomia- eta gizarte-eragileei kontsultak egin ondoren, honako hau erabaki da: alde batetik, II. eranskinetik aterako dira 2. eta 4. arauketak, arauketa ez dakarten kontzeptu berriak direlako, eta Jarraipen Planekotzat hartu daitezkeelako; bestetik, II. eranskinetik 4, 6, 10, 11, 13, 14, 15, 16, 19, 20, 21, 22, 24, 25, 27, 28, 31, 32, 33, 36, 37, 38, 40, 42, 44, 45, 46, 47, 50, 51, 52, 55, 56, 57, 59, 61, 62, 63, 65, 66, 67, 69, 70, 71, 72, 74, 75, 76, 77, 78, 79, 81, 82, 84, 85, 90, 93, 96, 97, 98, 101, 102, 104, 108, 110, 112, 115, 118, 119, 120, 122, 123 zenbakiak dituzten arauketak ezabatuko dira, gehienbat foru-organoei garatu behar dituzten kudeaketa-neurriak direlako eta, hala badagokio, Jarraibide eta Kudeaketa Neurriei buruzko Dokumentuaren III. eranskinean jasoko direlako.

Era berean, eta motibo berengatik, zehatz berrikusi dira kudeaketa- edo administrazio-neurriak dakartzaten arauketak; erabaki da aldaketak egitea arauketen idazketan eta arauketa berrienetan, besteak beste, Aizkorri-Aratzen KBEn –Aralarren KBEn antzeko ezaugarriak ditu–, baliatutako baldintzetara egokitzea –horiek aurrerago deskribatuko diren moduan geratuko dira idatzita, argiangoak eta eraginkorrangoak izateko–.

2.2.2 Dokumentuaren eredu, egitura eta edukia

Dokumentuaren ereduari eta egiturari eutsi zaio 9. zenbakian izan ezik, zeina desagertu baita, ulertzen delako haren edukia III. eranskinari edo beste laguntza-tresna batzuei dagokiela, eta, azkenik, edukiari dagokionez, txosten honetan justifikatzen diren aldaketak egin dira.

Horrela, sarreraren, Habitaten Zuzentzarauan bertan ezarritakoa kontuan hartuta, KBE dagoen mendiko nekazaritzako ekonomia- eta gizarte-eragileekin konektatu ahal izateko iraunkortasun-espiritua jasotzen duen paragrafoa sartzen da, eta honako hau dio:

“Dokumentu honen arabera hartutako neurriek eta bertatik ondorioztatu daitezkeenek kontuan izango dituzte ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskakizunak eta, ahal den neurrian, erabilera eta aprobetxamendu tradizionalekin egokitzeko ahalegina egingo da, gizarte-demanda berriei erantzuten dieten beste potentzial batzuekin, esaterako, aisia eta astialdia, ingurumen-hezkuntza edo ikerketa; horrela, eremua babesteko oinarri diren balioen galera ekar dezaketen eraldaketak saihestuko dira.

Helburu hori eta dokumentuan definitzen diren helburu bereziak lortu diren ebaluatu ahal da, objektiboki egiazta daitezkeen adierazleetan oinarritzen den jarraipen-programari esker.

Helburu eta arauak horiek datozen urteotarako ibilbide-orria markatzen dute, baina kontrola eta jarraipena egingo da sei urtez behin”.

Era berean, dokumentu eta gidetako berezko terminologia erabili du, Habitaten Zuzentzaraua aplikatzeko, eta diagnostikoaren atal guztietan jardueren kontzeptua jaso du, orain arte zen “presioak eta mehatxuak” kontzeptuari gehituta, bidezkoagoa eta orekatuagoa delako; orain, atal bakoitzean, “Jarduerak, Presioak eta Mehatxuak” agertzen da.

Halaber, esplizituki jasotzen da Enirio-Aralar Mankomunitatea. Honela dago idatzita:

“Eremuaren hego-ekialdeko sektorean, baso-masa eta herri-larreetako asko Enirio-Aralar Mankomunitatearen titulartasunekoak dira; toki-erakundea da, lurralde eta antolamendua duena, eta hari dagozkio bere titulartasunpeko lurraldearen administrazioa, kudeaketa, ustiapena eta aprobetxamenduen esleipena, mendien aprobetxamenduen tradiziozko eta ohiturazko erregelamendu bati jarraikiz, zeinak oso aspaldiko betekizunen ohiturak eta toki-erabilera jasotzen baititu. Erakundean 15 udalerri dira partaide”.

Desagertu den 9. zenbakia “Kudeaketarako laguntza-tresnak” izeneko da. Honako hiru zenbaki hauek zituen:

9.1. Biodibertsitatearen ezagutzak eta informazioa

9.2. Komunikazioa, hezkuntza, partaidetza eta hiritarren kontzientziazioa

9.3. Gobernamendua

2.2.3 Funtsezko elementuak, azken helburuak eta helburu operatiboak

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean eginiko hitzarmen-prozesuan erabaki da, bi aldeek adostasunez, beren horretan eustea jendaurrean jarritako II. eranskinaren 6. zenbakiko kontserbazio-helburuei eta horiei dagozkien funtsezko elementuei, azken helburuei eta helburu operatiboak. Alabaina, aldatu egin dira azken helburuen eta helburu operatiboen idazketa, terminologia antzeko ezaugarriak dituen Aizkorri Aratz KBerekin bateratzeko eta, batez ere, helburu zehatz eta egingarriak ezartzeko, tartean diren administrazioen artean erabaki ondoren. Azkenik, honela geratu dira idatzita helburuak:

Funtsezko elementua: Baso naturalak eta erdinaturalak

- **1. azken helburua** Gutxienez egungo baso natural eta erdinaturalen azalera mantentzea, horien berezko naturaltasun-mailak eta egituraren konplexutasun-mailak areagotuz.
- **1.1 helburu operatiboa** Baso naturalen eta erdi naturalen egungo kontserbazio-egoerari eta kudeaketa-beharrei buruzko ezagutza hobetzea.
- **1.2 helburu operatiboa** Pagadi azidofiloen (EBkod: 9120) eta artadi kantauriarren (EBkod: 9340) naturaltasun-maila eta egituraren konplexutasun-maila areagotzea.

Funtsezko elementua: Haltzadi kantauriarra

- **2. azken helburua** *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen (EBkod: 91E0*) baso alubialen egitura konplexua lortzea eta konplexutasun horri eustea, bertako espezie tipikoak kontserbatzen lagunduz.
- **2.1 helburu operatiboa** Haltzadi kantauriarren kontserbazio-egoeraren ezagutza areagotzea, baita bisoi europarrarena, desman piriniotarrarena eta ibai-karramarroarena ere.
- **2.2 helburu operatiboa** Haltzadi kantauriarren luzetarako eta zeharkako konektibitatea hobetzea, Naturagune Babestuan bisoi europarra, desmana eta bertako ibai-karramarroa zaintzen laguntzeko.

Funtsezko elementua: Mendi-larreak eta formazio belartsuak

- **3. azken helburua** Kontserbazio-egoera onean mantentzea gutxienez ere 100 ha larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizkor (EBkod: 6210), 780 ha larre alpetar eta azpialpetar karedun (EBkod: 6170), 1.700 ha Nardusdun formazio belartsu (EBkod: 6230*), eta 250 ha altuera gutxiko mozteko larre elkor (EBkod: 4060).
- **3.1 helburu operatiboa** Batasunaren intereseko larreen kontserbazio-egoera ezartzea, adierazle kuantitatiboak erabiliz.
- **3.2 helburu operatiboa** Larreen ustiapena antolatzea, larreei eta bertako bereizgarri diren espezieei beren horretan eutsiz.
- **3.3 helburu operatiboa** Gutxienez altuera gutxiko mozteko larre elkorren 250 ha mantentzea (EBkod: 6510).
- **3.4 helburu operatiboa** Landazabaleko paisaiaren espazio-heterogeneotasunari eta egitura-aniztasunari eustea.
- **3.5 helburu operatiboa** *Cladium mariscus* espeziaren paduraren kontserbazioa bermatzea, baita trantsizio-zohikaztegiarena ere.

Funtsezko elementua: Komunitate harkaiztarrak

- **4. azken helburua** Harkaitzei eta haitzuloei lotutako habitaten eta bertako espezie tipikoen egoera ekologiko ona bermatzea.
- **4.1 helburu operatiboa** Ingurune harkaiztar horiei buruzko ezagutza areagotzea.
- **4.2 helburu operatiboa** Harkaitzei eta haitzuloei lotutako habitaten gaineko mehatxu-faktoreak prebenitzea eta desagerraraztea.

Funtsezko elementua: Kiropteroak

- **5. azken helburua** II. eranskineko (Habitaten Zuzentzaraua) Batasunaren intereseko kiroptero-espezie guztien presentzia egonkorra bermatzea; espezie horiek guztiak kontserbazio-egoera egokian daude gaur egun Aralarren.
- **5.1 helburu operatiboa** Naturagune Babestuan dauden kiroptero-espezieen populazioen banaketa eta egoera hobeto ezagutzea, baita zer faktorek mugatzen duten haien kontserbazio-egoera egokia ere.
- **5.2 helburu operatiboa** Kiropteroen baliabide trofikoak eta haien joan-etorriak sustatzeko elementuak handitzea, habitata kontserbatuz eta hobetuz.
- **5.3 helburu operatiboa** Kiropteroen babeslekuak egokiro babestea, haien populazioei eragozpenak eragiten dizkieten faktoreak kenduz.
- **5.4 helburu operatiboa** Kiropteroen errekonozimendu- eta balorazio-maila hobetzea, haien garrantzia zabalduz.

2.2.4 Arauketa orokorrak

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean eginiko hitzarmen-prozesuaren bidez, “7. Kontserbaziorako arauak” puntuaren barnean honako 7.2, 7.3 eta 7.4 zenbakiak sartzea erabaki da:

7.2. Erabilera bateragarritzat jotzen dira behar bezala egin eta KBEen kontserbazio-helburuetan eragin neutroa edo positiboa dutenak. Honako hauek har daitezke erabilera bateragarritzat:

1. Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak, baldin eta martxoaren 2ko 79/2010 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait baldintza aplikatzeari buruzkoa) I. eranskinean ezarritako nekazaritza- eta ingurumen-baldintza onetan egiten badira.
2. Basogintzako erabilerak, zurgai, egurketa, larre, luberritze, basa fruitu, onddo eta landare eta loreen ustiapenak barne, betiere baso-baliabideen antolamenduko planen eta mendien antolamendurako planen arabera egiten badira, basogintzako kudeaketa iraunkorren irizpideei jarraituz, edo Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsitako larre-planei.
3. Ehiza, Gipuzkoako Foru Aldundiak onetsitako ehiza-antolamenduko planak betez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabilera horien eta horien gauzatzearen araubideari aldaketak egingo dizkio, borondatezko akordioak lortuz nekazariekin, abeltzainekin, baso-kudeatzaileekin, ehiza-eskubideen titularrekin edo aipatutako planak egiteko ahalmena duten erakundeekin.

7.3. Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen testu bateginaren arabera, dokumentu hau aplikatzearen ondorioz ondare-eskubide eta -interesak banaka gabetzeak, edozein delarik ere gauzatze modua, berekin dakar, dagokien kalte-ordaina lortzeko eskubidea, bidezko azterketa ekonomikoak egin ondoren.

7.4. Dokumentu honek ezartzen duen babes-araubidea bateragarria izango da autonomia-administrazioaren, Estatuko administrazioaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-administrazioaren eta tokiko korporazioen eskumenekin, sektorearen arabera beren eskumenekoak diren gaitan. Horrez gain, zuzenbide historikoko tokiko erakundeek mendiak antolatze, administratzeko eta kudeatzeko esleituta dituzten eskumenekin bateragarria izango da eta horiek gauza daitezela bermatuko du, bereziki, Enirio-Aralar Mankomunitatearen eskumenak.

Edonola ere, adierazi behar da, 7.2.2 zenbakiaren ildotik, hau ezartzen duela Gipuzkoako Mendien Foru Arauak (7/2006) bere 99. artikuluan: *“Baso antolaketako proiektuak nahiz kudeaketako plan teknikoak gai horietan adituak diren baso teknikariek idatzi beharko dituzte eta naturagune babestuen kasuan baliabide naturalen antolaketa planek eta erabilera eta kudeaketa plan gidariek xedatutakora egokitu beharko dute. Era berean babestutako flora eta fauna espezieak eta paisaia babesteko irizpideak eta arauak bete beharko dituzte”*.

Horrez gain, adierazten du eskubideen mugei buruzko paragrafoari dagokionez, Euskal Herriko NKLTBn ezarrita dagoela Lege hori aplikatzearen ondoriozko errenta-galerengatik eman beharreko ordainen araubide orokorra eta, beraz, Aralarren ere hori aplikatu behar dela. Edonola ere, gogorarazi behar da ordain ekonomikoak ezin direla orokorrean ezarri, baizik eta Helburuen eta Arauketen Dokumentuko muga zehatzei lotuta egon behar dutela.

Gainera, adierazi behar da errenta-galeraren ondoriozko ordainak aplikatzea Naturagune Babestuaren kudeaketaren zati dela, eta, ondorioz, foru-organismoek dutela horren gaineko eskumena. Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio horiek ezartzea eta zehaztea.

Eskumenen araubideari buruzko azken paragrafoari dagokionez, zehaztuta dago zer aplikatu daitekeen txosten honetako lehenagoko alegazioen erantzun gisa eta, teknika juridikoak goragoko mailako aplikazio-arauetan lehendik ezarritako gaiak berrestea gomendatzen ez badu ere, kasu honetan komenigarria izan daiteke, ekonomia- eta gizarte-eragileek alderdi horri dagokionez erakutsi duten kezka kontuan hartuta.

Ildo horretan, argi dago Naturagune Babestuaren kudeaketa foru-organismoek dagokiela. Beraz, Foru Aldundiari dagokio zehaztea nola gauzatuko diren KBEn organo kudeatzailearen eta tokiko administrazioen eta/edo beste erakunde interesdun batzuen arteko harremanak, lurraldean aplikatu daitekeen indarreko araudia oinarritzat hartuta.

2.2.5 Funtsezko elementuen arauketa:

Aurreko puntuetan argudiatu den moduan, administrazioen arteko hitzarmenak eta horiek beren gain helburuak harteak beharrezko egin du arauketak zehatz-mehatz aztertzea, KBEn eragina duten jarduerak behar bezala antolatze eta kudeaketa-neurri guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko esparruan sartzeko. Hori horrela, beharrezkoa izan da arauketak irizpide honetara egokitzea, funtsezko elementuen arabera multzokatuta, jarraian zehazten den moduan.

(1) Baso naturalak eta erdinaturalak

1. arauketak alde batera uzten du “naturaltasun-indizea” kontzeptua, eta honako arauketa orokor hau ezartzen du: “Baso-baliabideak antolatze planek eta mendien antolamendu-proiektuek edo EPMen plan dasokratikoek errespetuzko irizpideari eta, hala badagokio, tokiko basoak berreskuratzeko irizpideari jarraituko diete”.

3. arauketa 2. arauketa bihurtu da eta, lehengo ezaugarriei eutsiz, hau ezarriko du: “Lehentasuna emango zaio, batez ere EPMetan, interes ekologikoa duten zuhaitzak bertan uzteari, horien hautaketa...”.

5. arauketa, orain 3.a izango dena, positiboki birformulatu da, eta Aizkorri-Aratz KBeren 6. arauketaren arabera idatzi da; hala, “Naturagune Babestuko pagadi azidofiloen eta artadi kantauriarren eraldaketa saihestuko da, guztizko azalera gutxitzea dakarrenean”.

Bestalde, 8. arauketa ere positiboki birformulatu da, Aizkorri-Aratz KBeren 9. arauketari jarraituz, eta 5.a izango da hemendik aurrera: “Naturagune Babestua kudeatzen duen organoak ebaluatuko ditu pagadi azidofiloetan eta artadi kantauriarretan nekazaritza eta basoko intsektizida gehiegi erabiltzeak izan ditzakeen eraginak, eta horien dosiak eta aplika daitezkeen eremuak mugatuko ditu”.

9. arauketak (orain 6.a izango da) eta 12. arauketak (orain 7.a izango da) Erabilera Publikoko Mendietako pagadi azidofiloak eta artadi kantauriarrak arautzen dituzte.

17. arauketa bere horretan utzi da, baina horren idazketa bateratu egin da Aizkorri-Aratz KBeren 4. arauketarekin; honela idatzita geratuko da eta 8. zenbakia izango du hemendik aurrera: “Egur hila areagotzeko eta koleoptero saproxilikoak kontserbatzeko, borondatzeko akordioak ezarriko dira, moztutako zuhaitzetatik ateratako egurra lurrean uzteko, gomendatutako egur hilaren kopurua lortu arte”.

18. arauketa aldatu egin da, eta horren idazketa bateratu egin da Aizkorri-Aratz KBeren 12. arauketarekin; honela idatzita geratuko da eta 9. zenbakia izango du hemendik aurrera: “Baso autoktono bihurtu nahi diren EPMko eremuetan, trantsizio-ekotonoak sortuko dira, basoaren ertzeko espezieekin”.

29. arauketa *Rosalia alpina* babesteari buruzkoa da; orain 12.a da eta honela dago idatzita: “EPMen pagadi azidofiloetan, *Rosalia alpina* dagoen eremuetan bertan luzaroan egon den egur lehorra ez da kenduko uztailen eta abuztuan, espezie horren errunaldiak babesteko”.

30. arauketa gehiago zehaztu da eta 13. zenbakia izatera igaro da: “EPMetako pagadi azidofilo eta artadi kantauriarretan, ez da lurperatutako edo erdilurperatutako egurrik mugituko, ezta inguruko lurra ere, *Lucanus cervus* espeziearen larben bideragarritasuna arriskuan ez jartzeko”.

(2) Haltzadi kantauriarra

34. arauketa egungo 14. arauketan dago jasota, laburbilduta, eta bertako neurri zehatzak III. eranskinera igaro dira. Honela geratu da:

“14. Ibaiertz eta ubideetan jarduketek, ahal den heinean, ibaiertzean etengabe landaredia naturala egon dadila bermatzeko berreskuratze-, zaharberritze- edo mantentze-lanak barne hartuko dituzte; landaredia horrek gutxienez 10 m-ko zabalera izango du, gutxi gorabehera”.

Arauketa berri bat sortu da, 16.a, haltzadi kantauriarrei eragingo dieten pistak eta bideak jartzeko edo konpontzeko beharrezko kautelazko neurriak jasotzen dituen, eta makinaren ibai-ibilguetako joan-etorriak arautzen dituen:

“16.- Haltzadi kantauriarretan basoko lanak egitean, pistak eta bideak jartzean edo konpontzean edo makina astunak erabiltzea eskatzen duen beste edozein jarduera gauzatzean, makina horiek ibai-ibilguetan zehar ibiltzea saihestuko da, horiek aldatu eta uhertu ez daitezten. Ibaia nahitaez gurutzatu behar badute, ingurune horrek ahalik eta kalte gutxien jasateko prebentziozko neurriak ezarriko dira”.

41, 43, 48, 49 eta 53. arauketek 2.2 helburu espezifikoarekin dute lotura (“Haltzadi kantauriarraren luzetarako eta zeharkako konektibitatea hobetzea, Naturagune Babestuan bisoi europarra, desmana eta bertako ibai-karramarroa zaintzen laguntzeko”), eta 17., 18., 19., 20. eta 21. zenbakiak izango dituzte hemendik aurrera.

“17. Arrantza debekatuta dago ibai-karramarro autoktonoa barne hartzen duten zatietan, Naturagune Babestua kudeatzen duen organoaren berariazko baimenik eduki ezean”.

“18. Ur-bilketa eta -hargune berriak egiteko karramarro-populazioak dauden lekuetan, beharrezkoa izango da Naturagune Babestua kudeatzen duen organoaren baimena edukitzea, baldin eta populazio horien bideragarritasuna arriskuan jar badaiteke”.

“19. Ibaiertza zaharberritzeko jarduketetan, kontuan hartuko dira bisoi europarraren, desmanaren eta ibai-karramarroaren eskakizun ekologikoak, baita ibaiertzeko megaforbioenak ere”.

“20. Agauntza ibaian eta KBEen ibilguetan egon daitezkeen ibai-karramarroen espezie aloktonoak desagerrarazteko aukerak aztertuko dira”.

“21. Ibai-lasterren inguruan jarritako tranpetan, kendu egingo dira harrapatutako bisoi amerikarren aleak, talde egonkorrak eratu baino lehen”.

(3) Mendi-larreak eta formazio belartsuak

“Mendi-larreak eta formazio belartsuak” funtsezko elementuaren arauketari dagokionez, kontuan hartuta 3. azken helburua (“Kontserbazio-egoera onean mantentzea gutxienez ere 100 ha larre mesofitiko eta mesoxerofitiko bizkor (EBkod: 6210), 780 ha larre alpetar eta azpialpetar karedun (EBkod: 6170), 1.700 ha Nardusdun formazio belartsu (EBkod: 6230*), eta 250 ha altuera gutxiko mozteko larre elkor (EBkod: 4060)”), III. eranskinera lekualdatu da eta abeltzaintza-jarduerari buruzko arauketa berrantolatu egin da, 22. zenbakiarekin; Aizkorri-Aratz KBEren 18. arauketaren antzera geratu da idatzita. Zehazki, honela:

“22. Naturagune Babestu osoko abeltzaintza-jarduera behar bezala antolatuta egongo da, horretako idatzitako eta eskumena duten organoek onetsitako Antolamendu Plan Teknikoen bidez. Larreak eta abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko beharrezko inbertsioak barne hartuko ditu, gutxienez egungo abeltzaintza-aziendari bere horretan eusteko modukoak, eta inbertsio horiek gauzatzeko baldintzak zehaztuko ditu”.

Sastrakak kontrolatzeko metodo gisa sua erabiltzeko debekua foru-organoaren kontrolaren menpe geratuko da, gaur egun bezala, eta 23. arauketan egongo da jasota:

“23. Foru-organoak kontraktorik baimendu ezean, debekatuta geratuko da sua erabiltzea sastrakak kontrolatzeko metodo gisa. Organo horrek horretarako baimena eman ahal izango du, larretako habitatei eutsi eta horiek kontserbatzeko beharrezkoa denean”.

59. eta 60. arauketak 24. arauketa berrian berrantolatu dira, eta Aizkorri-Aratz KBEren 21. arauketarekin bat etorritik idatzi da:

“24. EPMetan, Habitaten Zuzentzarauetan sartutako larre eta sastraketako habitatak barne hartzen dituzten azalera guztietan jarduera agronomikoak gauzatu ahal izateko (ongarritzea, medeatzea, berriz ereitea, jarduera fitosanitarioak, herbizidak botatzea eta sastrakak kentzea), beharrezkoa izango da Larreak Antolatze Plan Teknikoei jarraitzea, edo, halakorik ezean, larreko habitaten mantentze- eta kontserbazio-lanen arloan eskumena duen eta horri lotuta dagoen foru-organoaren baimena eskuratzea.”

64. eta 68. arauketei beren horretan eutsi zaie, baina horien idazketa erraztu egin da, eta 25. eta 26. zenbakiak esleitu zaizkie:

“25. Ingurumeneko kontratua edo borondatezko beste akordio mota batzuk sina daitezten sustatuko da, larre-txilardia mosaikoa kontserbazio-egoera onean mantentzeko eta, era berean, abeltzaintza estentsiboak eragiten dituen ingurumen-onurak saritzeko”.

“26. EPMetako abeltzaintza-egiturak hobetzeko neurri guztiek barne hartu beharko dituzte dokumentu honetan zehaztutako kontserbazio-helburuek jasan beharreko inaktuak arintzeko beharrezkoak diren ingurumen-baldintzak eta neurri zuzentzaileak”.

Bi arauketa berri sortu dira:

“28. Eremu hauetara lotutako abeltzaintza-jarduera, horien kontserbazioa bermatuko duena, sustatzeko beharrezko azpiegiturak sortu, zaindu eta konpondu beharko dira”.

“29. Eremu hauetara lotutako abeltzaintza-jarduera, horien kontserbazioa bermatuko duena, sustatzeko beharrezko azpiegiturak sortu, zaindu eta konpondu beharko dira”.

3.5 helburu operatiboari (*Cladium mariscus* espeziaren paduraren kontserbazioa bermatzea, baita trantsizio-zohikaztegiarena ere) buruzko 80.-87. arauketek barne hartzen zituzten kudeaketa-neurriak III. eranskinera igaro dira, eta arauketa horiek berrantolatu egin dira, 30., 31., 32. eta 33. zenbakiak hartuz:

“30. Eusko Jaurlaritzaren habitaten kartografian sartzen diren habitatei (UEkod: 6430, 7140 eta 7210*) eragin diezaieketen turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatzeak, beharrezkoa izango da organo kudeatzailearen baimena lortzea. Baimen hori emateko, organo kudeatzaileak kontuan hartuko ditu gainazaleko jariatze-fluxuen norabidea eta drainatze naturalak, eta, hala badagokio, baina beharrezko babes-perimetroak ere. .

31. *Cladium mariscus* espeziaren paduran eta trantsizio-zohikaztegiaren egin daitekeen edozein jarduketarako, horien kontserbazio-egoera kaltetzea ekar badezakete, beharrezkoa izango da organo kudeatzailearen alde aurreko baimena eskuratzea.

32. Debekatuta dago drainatzeak instalatzea Eusko Jaurlaritzaren habitaten kartografian sartzen diren *Cladium mariscus* espeziaren paduretan eta trantsizio-zohikaztegiaren.

33. Kontserbazio- programen ex situ garapena egingo da, baldin eta programa horietan sartu beharreko espezieen populazioen bideragarritasunari kalterik ez zaiola eragingo bermatzen bada.

(4) Komunitate harkaiztarrak

4. azken helburuari buruzko 88. arauetatik 105.era bitartekoei dagokienez, kudeaketa-neurriak buruzkoak, Gipuzkoako Foru Aldundiak idatzi beharreko III. eranskinera igaro dira, eta gainerakoak berrantolatu egin dira (hemendik aurrera 35.-43. zenbakiak izango dituzte):

“34. Naturagune Babestuaren barnean baimentzen diren erabilera eta ustiapen berriek kontuan izan beharko dituzte hegazti harkaiztarren bizi-zikloarentzako interesgarriak diren I. eranskineko harkaitz eta haitzuloetako habitaten kontserbazioa bermatzeko nahitaezko baldintzak”.

“35. I. eranskinean jasotako harkaitz eta haitzuloetako habitaten bideragarritasuna arriskuan jarriko duten obra, lan eta jarduera berriak egin behar badira, hegazti harkaiztarren bizi-zikloarentzat interesgarriak izango direnak, jarduera horiek guztiak araudiari eta babes-planari jarraituko diete.

36. Debekatuta dago zentral eolikoak ipintzea 10 km-ko inguru batean Naturagune Babestuan, ugatzaren ohiko pausalekuen inguruan, edo EAEko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean eremu kritikotzat jotzen diren eremuetan.

37. Debekatuta dago zentral eolikoak ipintzea Naturagune Babestuan, sai zuriaren habia-tokien eta belatz handiaren hazkuntza-lurraldeen inguruko 5 km-ko eremuan, edo EAEko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean sai zuriarentzako eremu kritikotzat jotzen diren eremuetan.

38. Ezin izango da pista edo bide berririk ireki ingurune harkaiztarretan. Behar bezala justifikatuz gero, Naturagune Babestua kudeatzen duen organoak horretarako baimena eman dezake.

39. Ingurune horietan debekatuta dago biologia- eta geologia-gaiak biltzea, baita zientzia- edo apainketa-xedeetarako izanik ere, salbu eta aurrez Naturagune Babestua kudeatzen duen administrazioak baimentzen bada.

40. Hartxingadi basikoetako eta horiei lotutako landarediaren egonkortasuna ziurtatze aldera, higakinak erauztea debekatua dago.
41. Debekatuta dago animalia hilak dolina eta hobi karstikoetara botatzea, dela hegazti nekrofagoen espezieentzako elikadura-baliabideak mantentzeko, dela lurpeko urak ez kutsatzeko.
42. Hegazti migratzaileak ehizatzeo ehiza-postu finko berriak jartzeko eta harkaitzeko habitatak kaltetzen dituzten ehiza prestaturako eremuak jartzeko, beharrezkoa izango da naturagunea kudeatzen duen organoaren alde aurreko baimena lortzea; organo horrek ebaluatuko du eskaera bakoitza, naturaguneari eragin diezazkiokeen kalteak kontuan hartuta.
43. Kontserbazio-programen ex situ garapena egingo da, baldin eta programa horietan sartu beharreko espezieen populazioen bideragarritasunari kalterik ez zaiola eragingo bermatzen bada”.

(5) Kiropteroak

Kiropteroei buruzko 5. funtsezko elementuari dagozkion 106.-124. arauketei dagokienez, kudeaketa-neurriak III. eranskinean sartu dira, eta gainerako arauketei beren horretan eutsi zaie, honela idatzita:

44. *Ziurtatu beharko da kiropteroei jarraipena egiteko teknikek ez dakartela animaliak harrapatzea eta maneiatzea, irizpide tekniko eta zientifikoen arabera justifikatutako salbuespenen kasuan izan ezik, eta, betiere, organo kudeatzailearen alde aurreko baimena eskuratuta.*
45. *Kontserbatu beharreko objektuen jarraipen- eta inbentariatze-lanetan biltzen den informazioa beste naturagune batzuetako ikerlari eta kudeatzaileen esku jarriko da; zehazki, udan KBEn dauden espezieen negualdiko aterpeak egon litezkeen naturaguneetako ikerlari eta kudeatzaileen eskura.*
46. *Organo kudeatzaileak fitosanitarioen eta/edo plagiziden erabiltzaileentzako prestakuntza-, informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak sustatuko ditu, erabilera arduratsua eta kiropteroen populazioekin bateragarria egiten dutela bermatzeko.*
47. *Landazabal atlantikoan bereizgarriak diren egiturazko elementuak mantentzea ziurtatuko da, hala nola heskaiak, landa-hesiak, horma txikiak, baso txikiak, etab.; baita belardiak, iturburuak edo eremu istiltsuak ere.*
48. *Habitaten Zuzendarauko II. eranskinean zehaztutako kiroptero-espeziak barne hartzen dituzten barrunbeetara sartzeko, beharrezkoa izango da Naturagune Babestua kudeatzen duen organoaren alde aurreko baimena eskuratzea, baita aplikagarri diren gainerako baimenak ere.*
49. *Debekatuta dago kiropteroen populazioak asalda ditzaketen turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatzea Habitaten Zuzendarauko II. eranskinean zehaztutako kiropteroen babeslekuen inguruko 100 m-ko perimetroan, organo kudeatzaileak horretarako baimenik eman ezean.*
50. *Naturagune Babestua kudeatzen duen organoak EPMko zubi eta eraikinetan egiten diren obren berri eman beharko du, Habitaten Zuzendarauko II. eranskinean zehaztutako kiropteroak kaltetzea saihesteko.*
51. *Organokloratuak, organofosforodunak edo permetrinak erabiltzeko Habitaten Zuzendarauko II. eranskinean zehaztutako kiropteroen babesleku diren EPMetako eraikin eta instalazioak zaharberritzeko edo birmoldatzeko erabilitako egurrei emandako tratamendu intsektizidetan, beharrezkoa izango da gai honetan eskumena duen foru-organoren baimena eskuratzea.*
52. *Erraz iristeko moduko lekuetan koloniak edo babeslekuak aurkitzen badira, prebentzio-neurriak ezarriko dira leku horietan bandalismorik egon ez dadin.*
53. *Saguzar fisurikolen populazioak sendotuko dira, eta zirrikitu egokiak antolatuko dira, lan publiko batzuetan aterpetu daitezzen, hala nola zubietan eta biaduktuetan.*

2.2.6 Habitaten eta espezieen taulen laburpena

“7.6 Habitaten eta espezieen taulen laburpena” atala sortu da, jendaurrean jarritako dokumentuan agertzen ziren habitaten eta espezieen taulak barne har ditzan.

2.2.7 Jarraipen-programa

Jarraipen-programa sei urteko alditan egingo da eta tarteko ebaluazio bat egingo da (3 urte), gaian eskumena duten administrazioak elkarren artean koordinatuta.